

**Pablo García de Vicuña Peñafiel**
*Secretario General CCOO Irakaskuntza*

# NO a la LOMCE, SÍ a nuestro sistema educativo

*Vivimos tiempos muy complicados, en los que se nos reduce día tras día el margen para las alegrías. Varios años ininterrumpidos de noticias desesperantes para nosotros/as, profesionales de la Educación, que han ido minando nuestra confianza en los distintos gobiernos estatales y autonómicos cada vez que han tenido que tomar decisiones sobre el futuro educativo de este país o de esta Comunidad.*

**PRIMERO** se levantó el acelerador inversor en los programas estratégicos; después se modificaron unilateralmente las condiciones laborales consensuadas durante años con este sindicato en Madrid y en Lakua. Ahora, cuando los márgenes de negociación están en mínimos históricos, se nos pide un acto de responsabilidad ante la situación comprometida que vivimos por esta interminable crisis. Se intenta apelar a nuestra conciencia social y ciudadana para que asumamos la insostenibilidad del sistema si persistimos en la exigencia de un cambio de actitud sobre la restrictiva política educativa actual. Se pretende alimentar –¡una vez más!– nuestro desconocimiento de las urgencias que tienen las economías española y vasca en estos años de sequía.

En esa línea, minuciosamente establecida desde el giro conservador en que se mueven gobiernos estatales y autonómicos, quien ose plantear formas distintas de salir de la podredumbre política del momento recibe la correspondiente lista interminable de improperios, siendo tachado de insolidario y reaccionario. Ello, sin olvidar esa bonhomía prepotente de quienes desde su mirada altiva desacreditan cualquier iniciativa que cuestione su quehacer por utópico, desleal, o irresponsable.

Pero CCOO Irakaskuntza no se deja amilanar por esa pegajosa telaraña en la que quieren atraparnos unos y otros. Nuestro mensaje sigue siendo nítido y contundente: no aceptaremos unas reglas de juego, donde el terreno, los árbitros y hasta las normas estén acordadas sólo desde una parte.

Persistiremos en nuestro deseo de influir en el cambio de tendencia actual, en rechazar todo aquello que empeore las condiciones de trabajo; en profundizar en la mejora de una enseñanza cada vez más inclusiva, equitativa y democrática. En definitiva; de convencer de la necesidad de mejorar nuestro sistema educativo a partir de un aumento de la inversión, de la actualización de los programas educativos, de compartir experiencias y de estrechar colaboraciones.

Y en ese sentido, en colaborar y en rechazar a la vez, CCOO Irakaskuntza ha suscrito el Manifiesto de los agentes educativos sobre la LOMCE, tras el apoyo unánime de su Comisión Ejecutiva. Siempre hemos defendido que frente a este proyecto de ley, regresivo, centralizador, segregador, mercantilista y excluyente hay que sumar cuantas más fuerzas mejor. Unir esfuerzos en defensa de un modelo educativo –el vasco– que con una amplia capacidad de mejora aún, está demostrando niveles europeos en algunos objetivos educativos, todavía muy cuestionados en el resto del Estado.



Un Manifiesto que hace un llamamiento a la recuperación del papel coprotagonista que tiene que tener el euskera en Euskadi; que insiste en la defensa de la Escuela inclusiva, compensadora e integradora; que facilite la diversidad controlada del propio sistema; que garantice el éxito escolar a todo el alumnado y que reconozca la necesidad de consensuar y participar con toda la comunidad educativa cuantos cambios afecten a cualquiera de sus miembros.

Por eso extrañan ausencias de firmas en un documento tan ampliamente apoyado y con unos principios tan conciliadores. Extraña, por ejemplo, que STEE-EILAS, LAB y ELA no lo hayan firmado. Pero solo hasta cierto punto (recordemos su ausencia del documento suscrito sobre la normalización de la convivencia democrática en la Enseñanza vasca, conocido como "Compromiso del Carlton"; entonces alegaron independencia de criterio ante un panfleto conformista pero poco efectivo. ¿Ahora? Seguramente justificarán su "limitación", su falta de contenido identitario, permanente y recurrente tótem sindical).

CCOO Irakaskuntza pretende combatir la resignación mediante la acumulación de fuerzas que busquen propuestas en positivo. No es suficiente con el lamento; hay que acompañarlo consensuadamente de trabajo y mejora. La indignación solo será positiva cuando la canalicemos a través de iniciativas y objetivos mensurables.

Por eso, en ocasiones un breve lema puede resultar tremendamente conciliador y contundente: **NO a la LOMCE, SÍ a nuestro sistema educativo.**

# LOMCEri EZ, gure hezkuntza sistemari BAI

**Pablo García de Vicuña Peñafiel**
CCOO Irakaskuntzako Idazkari Nagusia



*Oso garai zailak bizitzen ari gara. Egunetik egunera poztasunak urriago dira. Hezkuntzako profesionalok urte batzuk izan ditugu nahiko txarrak eta elkarren segidan. Eta, horren ondorioz, gobernu estatal eta autonomikoekiko konfiantza murrizten joan da herrialde eta erkidego honetako etorkizunaz erabakiak hartu dituzten bakoitzean.*

**LEHENENGO,** programa estrategikoetan inbertitzeko azeleragailua altxatu zen. Ondoren, aldatu egin dira, alde bakarrak hala erabakita, sindikatu honek Madrilen eta Lakuan adostutako hitzarmenetako lan baldintzak. Orain, berriz, negoziatzeko marjinak gutxieneko historikoetan daudelarik, erantzukizuna eskatzen zaigu bizi dugun krisialdi amaiezinaren aurrean. Gure kontzientzia soziala eta herritarra gogorarazten saiatzen dira. Baldin eta oraingo hezkuntza politiko murriztailearen aldeko jarrera aldatzeko exijitzen jarraitzen badugu, haien ustez, sistemaren iraunkortasunik eza gertatuko da, eta hori geureganatzea nahi dute. Hau da, esan nahi digute –behin berrio ere!– lehortea jaun eta jabe den urte hauetan Espainiako eta Euskadiko ekonomiek dituzten premiak ez ditugula ezagutzen.

Ildo horretan, indar kontserbadoreek ezarri eta gobernu estatalak eta autonomikoak mugitzen diren norabide horretan, oraingo ustelkeria politikotik ateratzeko modu desberdinak planteatzen ausartzen denak irainen zerrenda bukaezina jasotzen du, eta insolidario eta atzerakoi dela esaten diote. Ezin ahaztu ikusmira harrotuaren xalotasun ahaltsua dutenak, haien eginkizuna auzitan uzten duen edozein ekimeni muzin egiten diotenak, utopiko, desleialtzat edo jotzen dutelako.

Hala ere, CCOO Irakaskuntza ez da kikiltzen batzuek eta besteek harrapatu nahi gaituzten armiarma sare lingirdatsuaren aurrean. Gure mezuak argia eta sendoa izaten segitzen du: ez ditugu onartuko alde bakarrak erabakitako joko arau, epaile eta arauak.

Behin eta berriro saiatuko gara egungo joera aldarazten, lan baldintzak okerragotzen duten alderdiak baztertzen, gero eta inklusibo, ekitatibo eta demokratikoago izango den hezkuntzaren hobekuntzan sakontzen. Azken batean, saiatuko gara konbentzitzen gure hezkuntza sistema hobetzeko inbertsioa gehitu beharra dagoela, hezkuntza programak gaurkotu eta esperientziak partekatu eta elkarlanak bultzatu behar direla.

Eta aipatutako bidetik joanda, lagundu eta arbuiatzeaz batera, LOMCEri buruz hezkuntzako eragileek egindako Manifestua sinatu du CCOO Irakaskuntzak, behin Batzorde Eragileak aho batez adostasuna eman eta gero. Beti defendatu izan dugu zenbat eta indar gehiago metatu, orduan eta hobe izango dela lege proiektu erregresibo, zentralizatzaile, bereizle, merkantilista eta baztertzaile horri aurre egiterakoan. Ahaleginak batu beharra dago euskal hezkuntza ereduaren alde, zer hobetu egonda ere, Europako mailan baitabil hainbat hezkuntza helburutan. Estatuaren gainerako tokietan, berriz, ez bezala.

Aipatutako manifestu horretan euskarak Euskadin izan behar duen rol koprotagonista azpimarratzen da. Berriro nabarmentzen da eskola inklusiboa, orekatzailea eta integratzailea defendatu behar dela. Ikasle guztien eskola arrakasta bermatu behar dela eta kideengan eraginak izan ditzaketen aldaketetan hezkuntza komunitateak adostasuna bilatu eta parte hartzeko onartu behar dela.

Harritzekoa da hain modu zabalean sostengua eman eta printzipio bateratzaileak bildu dituen dokumentu batean hainbat eragile ez agertzea. Harritzekoa da, esate baterako, STEE-EILAS, LAB eta ELAk manifestu hori sinatu ez izana. Baina harritu, neurri batean bakarrik harritzen du. Gogora dezagun ez zutela sinatu euskal hezkuntzan bizikidetza demokratikoaren normalizazioari buruzko dokumentua, "Carltongo Konpromisoa" izenez ezagututakoa. Nork bere iritzia izateko printzipioari heldu zioten, dokumentua haien ustez panfleto konformista eta ez oso efektiboa zelakoan. Eta orain? Bada, orain, seguru asko justifikatuko dute haien jarrera esanez manifestuak badituela bere "mugak", ez duela identitate edukirik, hau da, behin eta berriro erabiltzen duten betiko totem sindikala.

CCOO Irakaskuntzak etsipenari egin nahi dio aurre proposamen positiboak bilatzen dituzten taldeak elkartuz. Ez da nahikoa negarrarekin. Elkarrekin lan eginez eta hobetuz aritu behar da. Haserrea positiboa izango da, baldin eta ekimen eta xede neurgarrien bitartez bideratzen badugu.

Horregatik, zenbaitetan, goiburu labur bat izan daiteke izugarri bateratzailea eta guztiz sendoa: **LOMCEri EZ, gure hezkuntza sistemari BAI.**